

iruner

200. zenbakia. 2011ko abendua



Mintzodromoa
Irunen:
euskara plazara!



Goian, emakumezkoen talde absolutua; behean, gizonezkoena.



M15M
mugimendua:
Bidasoako
suminduak, esna.



Super Amara BAT, 300
atletako talde emankorra

PREST

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa **Arrasate**

ABENDUAK 17 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea



Oñati **ABENDUAK 15** osteguna, 18:00 **Irun** **ABENDUAK 17** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea **Donostia**

ABENDUAK 17 larunbata, 10:30

*Mundu bat
nahi beste aukera*



902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Laguntzaileak



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

irunero

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78.

Faxa: 943 63 18 77

irunero@infotxingudi.com

www.infotxingudi.com

Argitaratzailea: TB S.L.

Erredakzioa

maketazioa: Ana Grijalba.

Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi

Zuzentzailea:

Xabier Kerexeta.

Inprimategia: Antza

Tirada: 3.500 ale

Lege gordailua: SS-230-94

ISSN: 1134-0606

Aurkibidea

4.- *Lapikoan*

- Mintzodromoa Irunen.
- Julen Olamusu, atleta ohia eta irakasle erretiratua.
- Branka, itsas ondarea berreskuratu nahian.
- M15M Bidasoa, demokrazia biziberritzea xede.
- Denon Osasunaren Alde-ko Iñaki Bidegainek liburu bat idatzi du.

13.- *Kirolak.* Bidasoak urrezko ezteiak ospatuko ditu.

15.- *Gaia Nagusia.* Super Amara BAT, atletismoa osasuntsu Bidasoaldean.

19.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak.

20.- *Kontsumitzaileentzako aholkuak*

22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa*

Errua.

24.- *Eleak iruten.*

25.- *Lerroz lerro.* Lutxo Egia
Txakur ingelesak

26.- *Kultur Agenda.*

28.- *Gazte Informazioa.*



Alizia, Garbiñe, Carol eta Aintzane.



Mintzodromoa: euskara plazara Irunen

Euskararen erabilera kalera ateratzea zen dema, euskaldunek eta euskara-ikasleek euskaraz solasean kafetxo bat hartzen zuten bitartean. Ederki asko lortu zuen helburua abenduaren 2an burutu zen Irungo Mintzodromoak.



Julen, Celia, Uxue eta Maider.

Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna kari, azken urteotan Donostian Mintzodromoa antolatu izan da. Aurten Foru Aldundiak beste zazpi herritara zabaldu du, tartean, Irunera. Irungo Udalak, proposamenari erantzunez, hiriko hiru euskaltegiekin –Herri Jakintza, AEK eta Udal Euskaltegia– eta Euskara Elkarrekin batera, abenduaren 2an ekimena aurrera eraman zuen Mendibil Merkataritza Guneko kafetegian.

Parte-hartzaileek, lau laguneko taldetan banatuta, 15 minutuko hiru mintza praktika egin zituzten euskara hutsean gai jakin baten inguruan hitz eginez. Gaiak honakoak izan ziren: Gabonetako kontsumismoa, tabakoaren legea eta Euskararen Eguna eta antzekoak (amaren eguna, maiteminduen...).

Harrera ona

Goizeko eta arratsaldeko saioetan guztira ehundik gora lagun bildu ziren, lauko taldetan banaturik, kafetxo baten inguruan berriketan egitera. Hizkuntza Eskolako nahiz euskaltegi-tako ikasleak nagusi ziren; euskaldun zaharren artean, Mondragon Unibertsitateko ikasleak bertaratu ziren, kolaboratu aldera, baita Irungo Udaleko zinegotzi zenbait ere. Halaber, aurpegi ezagunak ikus zitezkeen, euskarari bultzada

bat ematera hurbildu zirenak; tartean, Amets Arzallus bertsolaria, Mañu Elizondo antzezlea eta Muguruza anaiak.

Euskara Arloko arduradunak pozik zeuden ekimenak izandako harrera onagatik.

Ikasgelatik kanpo, euskaraz


Mondragon Unibertsitateko ikaslea den Martin euskaldun zaharra eta Oihane, Cristina eta Patxi euskara ikasle gaztetxoak gustura aritu ziren mahai baten inguruan. Kafetegiko zerbitzariarekin ere euskaraz mintzatzea izan zuten. “Lagunartean zaila gertatzen zaigu euskara erabiltzea. Denak euskaldunak ez direnez, gaztelaniara jotzen dugu” azaldu zuten.

Beste mahai batean, Julenek, Celiak, Uxuek eta Maiderrek jardun zuten, gustura jardun ere. Titulu bat lortzea ez dela euren helburu nagusia azaldu zuten, euskaraz bizitzea baizik. Lagunekin hitz egiteko aukera badute ere, “pila bat kostatzen zaigu”, onartu zuten. “Ohitutzea da gogorren gertatzen zaidana”, zioen Celiak. “Oraindik ere hitz egin aurretik buruan itzulpena egiten dut. Baina hori gainditzea lortuko dut!”

Baliteke hurrengo Mintzodromo batean orain ikasle direnak euskaldun oso izatea!

Julen Olamusu, atleta ohia eta gorputz hezkuntzako irakasle erretiratua

“Bereziki gogoan ditut onenekin egindako lasterketak, tartean Mariano Haro zegoela”



Bere bizitza kontatzen hasi orduko atletismoa hitza aipatzen du Julenek. Gazte-gaztetan lasterketetan parte hartzeari ekin zion eta 70eko hamarkadan punta-puntakoekin aritu zen. Kirola, afizioaz harago, bizibide ere izan du, Txingudi Ikastolan, oraintsu jubilatutako arte. Oraindik ez da, ordea, ibilbidearen helmugara iritsi.

- Nolatan hasi zinen atletismoan?

11 bat urte nituenean Amuten taldetxo bat sortu zen. Aurrerago, Herrerako Klub Atletikoak fitxatu ninduen eta handik Anoetako taldera pasa nintzen. Koro Fuentes, Belen Azpeitia, Mertxe Lacasa, Iñaki Gabilondo eta Luis Maiza izan nituen taldekide, besteak beste. Joseba Sarriegik Telesport sortu zuenean, Irunera etorri nintzen.



Olamusu, 1979ko Behobia-Donostian 3. egin zuenean.

zenuela argi zenukan?

Oso gazterik atera nuen entrenatzaile titulua, argi neukalako bide horretatik jarraitu nahi nuela. Hainbaten entrenatzailea izan nintzen: Luis Yerga, Begoña Zuñiga, Juanjo Laso, Joxemari Etxegoien, Iñaki Campón, Isabel Castellanos, Iñaki eta Mikel Sanchez, Joxe Erzibengoa eta zendu zen Julian Sanchez. Lehiaketetan 1984 arte jarraitu nuen.

- Zer lorpen duzu bereziki gogoan?

1979ko Behobia-Donostian 3. egin nuen, ordu bat eta sei minutuko denborakin. 70eko hamarkada hasierako Elgoibarko Nazioarteko ospetsua bereziki gogoan dut, goi mailakoekin korritu nuelako, tartean Mariano Haro historiakoarekin. Nik 11. egin nuen, Ingalaterrako txapeldunaren aurretik.

- Zer baldintzatan egiten zen atletismoa garai hartan?

Ez zuen gaur egungo dimentsioa; denak afizionatuak ginen, lasterketa bateko sari gisa ere ezin genuen dirua eskuratu, debekatua baitzegoen. Ordu pila ematen genituen entrenatzen. Gaur egun lasterketa asko antolatzen dira; baina garai haietan neguan krosak antolatzen ziren, udaberrian pistan aritzen ginen, eta udan, maratoietan.

Materialari dagokionez, askoz ere kaxkarragoa zen: egin kontu, kirol-oinetakoak erosi eta segituan min ematen ziguten. Gaur egun, berriz, oso erosoak dira. Izerdiaren kalteak saihesteko bularrean tiritak jartzea bezalako konponbideak baliatzen genituen.

- Atletismoaren ildoak jarraitu nahi

- Noiz heldu zitzaizun profesionalki aritzeko lehenengo eskaintza?

1978an Txingudi Ikastolak gorputz heziketako irakasle izateko eskaintza egin zidan. Hasieran El Pilarreko gazteekin ere jardun nuen. Eskola-orduz kanpo atletismoan aritu nahi zutenak entrenatzen genituen, musutruk. Harrobiaren aldeko apustua egin nuen; baina horrek konpetizioa utzi behar izatea ekarri zidan.

- Zein izan da apustu haren emaitza?

Oso onak. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak ere irabazi genituen. Gaur egun atletismoaren osasuna ona da: horren lekuko, ia eskola guztietan talde bat dutela.

- Urte asko eman dituzu hezkuntzan: zer aldatu da?

Tekniken aldetatik aldaketak eman dira, eta orain kirol gehiago ezagutzen dituzte haurrek. Gurasoei dagokienez, lehen kolaborazio handiagoa zegoela esango nuke, eta haurrak gehiago animatzen zituztela.



Ubarikak Hondarribiko Alamedan.

Branka, itsas ondarea berreskuratzen

Bidasoaren bokaleko historia itsasoak bustia da; baina, bare-bare, kultura hori hondora doakigu. Aberatsa bezain ahantzia den iragana gureganatzea, eta ondare materiala, euskorrra, eta materiala ez dena, heldulekurik gabea, berreskuratzea da sortu berria den Branka elkartearen lan ildo.

Gure itsas ondarea lehor ez dakigun, arraun egiteari ekin dio Brankak: gogobero batzuk ontzi zaharrak berritzen hasiak dira, eta artxibo zaharretan hautsak kentzen ari direnak ere badira.

Andoni Etxarriren aspaldiko nahia gauzatu da. Urtetan proiektua bultzatzen aritu ondoren, berriki elkarte eratu da; horren leinari Andonik berak jardungo du.

Brankaren helburua ez da museo bat eraikitzea, Pasaiaiko Albaola Itsas

Kultur Erakundearen ildoa jarraitzea baizik. “Gure proiektua bizia da, artxiboko lanera mugatzen ez dena”. Andoni Etxarrik Albaolarekin egindako elkarlanari jarraipena eman nahi dio Brankaren bitartez. Lehenengo ametsa egia bilakatu zen Pasaian: Maribeltz batel zaharra berritzea.

“Orain 1954ko arrantzuntzi tipikoa zaharberritzen ari gara. Donibanen zegoen, abandonatua, usteltzen hasia”.

Ubarika bat berreraiki

Ubarika motako batela Bidasoan soilik erabiltzen zela gogoratzen du Andonik. “Garai batean oso zabaldua zegoen txingarako untzi hau, ordea, duela 80 bat urte desagertu zen”. Nostalgiaren haritik tiraka, Brankak gure inguruarekiko harremanetan guztiz txertatua zegoen kulturaren aztarna horietako bat berreraiki nahi du. Hortaz, ubarika bat ur azalera aterako dute.

Trainerua, Bidasoarekin oso lotuta

Ez da makala Brankaren eginkizunen zerrenda. Traineruak badu horren baitan lekua, bere jatorria Bidasoarekin oso lotuta baitago. “Hara non 1750. urtean hondarribiar batek sekulako iraultza ekarri zuen arrantzara, xerko izeneko teknika asmatuz”, azaldu digu Etxarrik. “Ordura arte sareak zuzen, barrera moduan erabiltzen zuten. Xerkoari esker harrapaketak handitzea izan zituzten. Sare horren izena treina zen eta, hortik, trainerua, ontziaren izena. Bada, horixe gure beste ametsetako bat”.

Jaia eta liburak

Ondarea gizarteratzeko lanak udan emango ditu lehen fruituak, arrantzaren bilakaera erakusteko Hendaian antolatuko duten jaia medio. Zabalkunde jardunarekin jarraituz, liburuxkak argitara emateko asmotan da Elkartea. Brankak haizea du popan!

Brankarekin harremanetan jartzeko:

biskarka@free.fr



Andoni Etxarri, Brankako lehendakaria.



Goian, Maribeltz batela, zaharberritze prozesuan; behean, berritua.

Bidasoako suminduak

“Jendeak demokrazian parte hartea bultzatzen dugu”



Bruselaraino iritsi zen martxa Irundik igaro zeneekoa, joan den abuztuaren.

Madrilen jaio zen M15M mugimenduari lotu zityaizkion; orduz geroztik, ostirale-ro biltzen dira Irungo Zabaltza plazan demokrazia loalditik esnarazteko xedez. Eskualdeko suminduen topagune den Bidasoako Kanpaldia abian da.

Hainbat hiritar bezala, sumindurik daude. Ez dute, ordea, politikan eta ekonomian gertatzen diren gehiegikerien aurrean ikusle huts izan nahi. Lehenengo urratsa Zabaltza plazan ostirale-ro batzar-rrak antolatzea izan zen, informazio alternatiboa hedatu aldera. Greziako kasua, Islandiakoa, Kutxaren bankarizazioa eta maiz-

terren kaleratzea izan ziren gaietariko batzuk. “Gure jardueraren helburua jendearengan kontzientzia piztuaraztea da”, azaldu digute hiritar mugimendu honetako Leirek eta Mirenek. “Demokraziaren mamia berreskuratzea beharrezkoa da; hau da, jendearen parte-hartzea da bultzatzen duguna, demokraziaren hastapenetan bezala”. Suminduen ustez “ez da nahikoa lau urtean behin bozkatzea eta egoeraren errua politikarieriei egotea, hori ez baita konponbidea; gauzak aldatu nahi baditugu nor bere ardura hartu behar du, inplikatu”.

Bat eginik bidezkoagoa den mundu bat lor daitekeelakoan, lanean dihardute adorez. Alde batetik, hainbat ekintza antolatu dute. Kontzientzia esnarazteko *Itzali telebista eta piztu zure burua* izenekoa kalean burutu zuten: sofa batean eserita, telebista ikusten ariko bailiran egin zuten. Beste batean, *konzientziario pintxoak* banatu zituzten jendartearen, *ez dago horrenbeste txorizorentzako ogirik* esaldiaz lagunduta. Bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko jarduera bat eta San Juan sura hipotekak sinbolikoki botatzea izan dira aurrera eramandako beste bi ekimen.

Kaleko ekintzez gain Bidasoako Kanpaldiaren jarduna bertako politikariren lana hurbiletik jarraitzea ere bada. “Alderdi politikoeekin eta alkatearekin bildu gara Udaleko kontuetan modu aktiboan parte hartu nahi dugulako. Orain arte harrera ona izan dugu”, diote Mirenek eta Leirek. Proiektuen artean potoloena inguruetako elkarrekin harremanetan jartzean eta gai komunak lantzean datza. Demokrazia ustel ez dadin, gogoz aritzeko delibertuta daude. Web orria:

e-posta: m15mbidasoa@gmail.com

wiki: m15mbidasoa.plazan.net



Irungo M15M mugimenduko kideak Madrilan, ekintza batean.



Donostian, Kutxaren bankarizazioaren aurkako protesta ekintza.



Bidasoako suminduen ekintza bat, San Juan Harria plazan.

Iñaki Bidegainek Amazonian gertatutako istorio zirraragarria idatzi du

Iñaki Bidegain DOA (Denok Osasunaren Alde) Gobernuz Kanpoko Erakundeko medikuak *Ricardito y el caimán* izenburuko eleberria idatzi du. Amazoniako haur autista baten istorioa ekarri du, gertaera errealetan oinarrituta. Magia, tragedia eta natura, Boliviako bizimoduaren osagaiak, liburu honen ezinbesteko elementuak dira.

- Zer dela eta izan zenuen istorio hau idazteko aukera?

Amazonian DOAren proiektu batean lanean ari nintzela, haur autista bat ezagutu nuen. Trinidad hirian urritasunak dituzten pertsonentzako zentro bat bisitatzeraz gonbidatu ninduten. Handik aurrera proiektu txiki bat egiteari ekin nion. Bi urte igaro ondoren, bi hezitzaileekin bueltatu nintzen San Ignacio de Moxos-era. Orduan Ricarditoren inguruko istorio berezia sortu zen, hain zuzen liburuan jasota geratu dena.

- Nolako istorioa topatuko du irakurleak?

Eleberria gertaera errealetan oinarrituta dago. Magia eta natura barra-barra topatuko du irakurleak, horiek baitira Amazoniako bazter guztietan dauden elementuak. Tragedia ere osagai nagusietako bat da, munduak alde haietan arruntagoa ematen duena.



Iñaki Bidegain.



Liburuaren azala. Ilustrazioak Rafael Munoarenak dira.

Bidasoak urrezko ezteiak ospatuko ditu

2012an Bidasoa Kirol Elkarteak bere 50. urtemuga ospatuko du. Prestaketa lanak aurrera eramateko batzorde bat eratu da. Paco Martin lantalde horretako kide da.



- Zein da emango duzuen lehen urratsa?

Santo Tomas egunen jarriko dugun txosnan oroitzapenezko egutegia saltzen hasiko gara. Lehenengo helburua ekintzak antolatzen hasteko dirua biltzea da, elkarteak ez baitu sosik une honetan. Dirua lortzeko beste bide bat babesle pribatu bat bilatzean datza.

- Nolako ekimenak gauzatzeko asmatan zabilzate?

Espainiako Eskubaloi Federazioarekin harremanetan jarri gara selekzioak Artalekun partidu bat joka dezala proposatzeko. Ezinezkoa balitz, partidu garrantzitsu bat nahi genuke; esaterako, Madrilgo Atletikoak parte hartuko lukeen norgehiagoka bat. Bestetik, jokalariek jantziko duten 50. urtemugako kamiseta prestatzen ari gara. Gainera, kontzertu bat antolatu nahi dugu, eta saltokiek emandako produktuekin zozketa bat egin.



Goian, 50. urtemugako programa antolatuko duen batzordea; behean, bazkide kanpainaren kartela.

- Joko onaz gain, sasoi honetan badi-rudi giroa ere berreskuratu dela.

Bai, Bartzelonaren aurkako partiduan Artaleku jendez gainezka ikustea zirrargarria izan zen. Ziur naiz urte pare bat barru Bidasoa Irunek Asobal Ligan ikusiko dugula berriro.



Angela Basabe eta Felix Manso enpresaburuak.

**Gaztelumendi-Antxon taberna eta jatetxeak
Kalitatearen Q ziurtagiria eskuratu du**

“Kalitatearen Qak denborari etekin handiagoa ateratzen lagundu digu”

Euskadin honezkero 273 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua egiaztatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Dagoeneko, jardunbide egokirako programan, badaude Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu.

- Zein izan zen sistema honen alde egiteko arrazoia?

Antolaketa eta lan egiteko modua hobetzea.

- Zer abantaila ekarri dizue Q ziurtagiria edukitzeak?

Antolaketa hobetu dugunez, orain denborari etekin handiagoa ateratzen diogu eta, ondorioz, negozioa optimizatu dugu.

- Nolako hobekuntza izan duzue barne funtzionamenduan, kudeaketan eta azpiegituran?

Zereginak sailkatu ditugu, eta zeinek egin behar dituen zehaztu. Bestalde, kutxa erregistratzaile berriak erosi ditugu langileek lana azkarrago egitea izan dezaten. Halaber, bezeroak erakartzeko ekimen bereziak antolatu ditugu.

- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Galdera horri bezeroek erantzungo diote, inkesten bidez.

- Zer esango zenieke turismo arloko profesionaleri, Kalitate Turistikoaren Qaren ezartzera anima daitezten?

Eguneroko lanen kontrola egitea

ahalbidetzen duen prozedura ezartzen digula eta diziplina horretan hezten gaituela.

- Beste enpresari batzuei gomen-datuko zenieke?

Bai, exijitutakoa gauzatzeko prest badaude.

- Kalitate Turistikoaren Qak zure enpresaren kokapen lehiakorrago ahalbidetzen du?

Bai, hobetzeko bidetik jarraitzen badugu.

- Ezarritako eskumenen artean, zer izan da garrantzitsuena edo erabilgarriena?

Eguneroko gorabeheren erregistroa.

- Kalitatearen kultura zure enpresan bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?

Bezeroei begira, ekintza bereziak eta berriak antolatzeko asmoa dugu.

Eusko Jaurlaritzak eta Basquetour Turismoaren Euskal Agentziak, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrago izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

- Jardunbide egokirako programak: helburua da enpresarien “profesionalizazioa” eta jomuga-konzientzia sortzea. Euskadin badaude Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu.

- Kalitate Turistikoaren Q programa: bezeroen iguripenak betetzea eta nahiak asetzea bermatzen

dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q bereizgarria.

- EFQM Bikaintasun eredua: erakundeei kalitatearen bikaintasun maila erdiestea proposatzen dien programa. Euskadin 14 establezimenduk dihardute eredu honetan parte hartzen.

Jarri Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria zure establezimenduan!

94 607 75 86

94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net

www.euskalit.net



Atletismoa osasuntsu Bidasoaldean

19 urtetik beherako neska-mutilak.

Olaizola

Inmobiliaria
agentzia

Salmenta - Alokairuak
Promozio berriak - Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 IRUN
Tel: 943 62 65 85
API 316

www.inmobiliariaolaizola.com



higer bidea, 6-
20280
hondarribia.
gipuzkoa
t(34) 943 64 27 12

arrokaberri@arrokaberri.com
www.arrokaberri.com





Kross taldea Gasteizen.



Eskolaumeak Plaiaundin.

Aurrekontu eskasak dakartzan mugak gora behera, lanean gogotsu aritzea eta harrobia bultzatzea filosofia ardatz izaki, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldea (BAT) elkarre sendoa bilakatu da. Horren lekuko argiena da Irungo eta Hondarribiko 160 kirolari federatu dituela eta 150 eskolaumekin lanean jarduten duela. "Azken urteotan gorakada handia izan da federatu kopuruan, Euskadin federatu gehien dituen taldea izatera ere iritsi da eta", adierazi digu Ibon Muñoz zuzendari tekniko eta entrenatzaileak. "Harrobia bultzatzearen poderioz lortutako emaitzak dira. Haur asko dira behin probatu eta gero jarraitzen dutenak. Gainera, garrantzizkoa da hasiberrientzat taldekideek lorpen politak erdiesten dituztela ikustea".

Zortzi lagunek osatzen dute Super Amara

Super Amara babeslearen bultzada

Urte asko igaro ditu taldeak babelerik gabe, baina arestian berri ona jaso du: Super Amararen laguntza ekonomikoa izango du aurrerantzean. Ibon Muñoz zuzendari teknikoa pozarren dago. "Estualdiak bizi izan ditugu, aurrekontu eskasagatik. Babesletza lagungarria izango da kontuak finkatzeko, eta gure atleletan inbertitzea ahalbidetuko digu; esaterako, entrenatzailetan eta hain beharrezkoa dugun arropan. Taldeari, oro har, bultzada bat emateko balio izango du".

gesAR
gestoria ARANA
consorcio de seguros

asesoria aholkularitza
integral integrala
ingeniería ingenieritza
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.
IRUN

Tel: 943 666 050

Fax: 943 618 075

gestoria.arana@garana.com

BATen zuzendaritza batzordea eta, guztira, hamabi begiralek dihardute eskolaumeak entrenatzen.

Goi mailako emaitzak

Seniorrak, bai neskak bai mutilak, Liga Nazionaleko lehenengo mailan daude. Iazko denboraldian emakumezkoak Euskadiko garaile izan ziren, eta gizonezkoak, bosgarren. Hemeretzi urtetik beherakoen emaitzak (jubenilak eta juniorrak) primerakoak izan dira, Euskadiko txapelketa irabazi zuten eta.

Espainiako banakako lehiaketan parte hartu duten Super Amara BATeko atleten kopurua ez da makala: 70 lagun. Haien artean Teresa Errandonea nabarmendu da. Hamasei urte bai-zik ez duen gaztetxo horrek 4. egin du 100 metroko hesi-lasterketan jubenil mailako Europako Lehiaketan. Mundukoan, 16. sailkatu zen. Espainiakoetan 3. geratu zen absolutuetan; hau da, atleta zaharragoen aurretik.

Teresa Zaragueta dav taldeko beste kirolari aipagarriena. Hamalau urte baino ez ditu eta dagoeneko 8. egin zuen Espainiako absolutuan. Gainera, Euskadiko altuera-jauzian errekorra dauka, 1,73 metroekin.

Marina Elozegi hondarribiarra Estatuko absolutuan 400 metrokoan 15. sartu zen.

Mutiletan nabarmentzekoa da Imanol Gil abiaduralaria. Espainiako absolutuetan 100 metrokoen neurketan zazpigarren iritsi zen helmugara, 10 segundo eta 81 ehuneko denboraz.

Urrezko bi neska



Teresa Errandonea, hesi-lasterketa batean.



Teresa Zaragueta altuera-jauziko Euskadiko marka ondu du.

limpiezas
txukun
garbiketak

C/ General Bergaretxe, 4 - Local 7 - 20104 Irun, Gipuzkoa
Tel: 943 573 291 - Leire: 667 706 791 - Susana: 618 967 673
info@txukun.com - www.txukun.com

Alkateak herritarrekin bilera irekiak egingo ditu auzo guztietan

Jose Antonio Santano Irungo alkateak auzo guztietan topaketa irekiak egingo ditu herritarren hurbileko arazoak zuzenean entzuteko. Programa hau *Alkatea Auzoetan* deitzen da. Agintealdi honen hasieran Santanok izenpetu zuen dekalogoari jarraiki abian jarri da, herritarren parte-hartzea eta gardentasuna bultzatzea xede duena. Hartara, alkatearen presentziatz gain, herritarrek beren iritziak nahiz iradokizunak Udalarai helarazi ahalko dizkiote, udal web orriari irekiko den gune berriaren eta ipiniko diren postonzien bitartez, helarazi ere.

Aurreneko bilera Larreaundin burutu zen joan den abenduaren 1ean.



Larreaundin egin zen bilera.

Luis Mariano Lirika Elkarteak bost ikuskizun antolatu ditu 2012 denboraldirako

Otsailaren 12an izango da lehena, *Viva la Zarzuela* izenburuko errezitala. Martxoaren 24an eta 25ean operaren txanda izango da. Mozarten *Così fan tutte* taularatuko dute. Ikuskizun lirikoaren zaletuek ekainaren 24an izango dute hurrengo hitzordua. Egun hartan Sorozabalen *La Taberna del Puerto* eskainiko da. Irailaren 29rako, Asenjo Barbieri-ren *El Barberillo de Lavapiés* zartzuela antolatu da, eta, azkenik, azaroaren 17rako eta 18rako opera saio bikoitza: Mascagni-ren *Cavalleria Rusticana* eta Leoncavallo-ren *Pagliacci*. *Opera zineman* atalaren barruan sei emanaldi antolatu ditu Elkarteak.

Ikuskizun guztiak Amaia KZn izango dira.



Kontsumitzaileak, estuason ekonomikoko Gabonen atarian 4. urtez

2007az geroztik Gabonetako gastua %30ean murriztu da

**ACUBI Bidasoako
Kontsumitzaileen
Elkarteak eta KIUB
Kontsumitzaileen
Informaziorako Udal
Bulegoak Gabonetan
familiek gastatuko duten
diruaren inguruan
ondorengo informazioa
zabaltu nahi du.**

Aurten ere Gabonak krisi ekonomikoak markatuta datozkigu, laugarren urtez, etorri ere. Beraz, kontsumitzaileek tentuz jokatu dute erosketak egiteko orduan.

Espainiako etxe bakoitzean batez beste 668 euro gastatuko dituzte 2011ko Eguberrietan, iaz baino %1 gutxiago. Metatutako inflazioa (%3) kenduta egin da kalkulua.

Espainiarren Gabonetako batez besteko gastua %30ean murriztu da 2007tik. Azken lau urteotan kontsumitzaileek gutxiago gastatu duten arren, aurten askok ahalegin ekonomiko egingo dute. Eros-ahalmena 2010ean baino eskasagoa bada ere, kontsumitzaileak



jaiez gozaten saiatuko dira, eta egun batzuetan zehar krisi ekonomikoan pentsatzeari utziiko diote. Halaxe adierazi du Gabonetako kontsumoari buruz Deloitte-k landutako ikerketa batek.



Etxe bakoitzean oparitan 393 euro gastatuko dituzte, batez beste. Perfumeak eta jostailuak izango dira **izarrak**.

Deloitte-ren arabera, opari erabilgarriak erosketen %75 izango dira, iaz baino %15 gehiago. Bulkadaz erostea %8k baino ez du aurreikusuten.

Aurreko urteetan bezalaxe, hiritarrek aurrekontuaren erdia oparitan xahutuko dute. Familia bakoitzak 393 euro inbertituko ditu batez beste. Espainiarrek liburuak, bidaiak eta arropa oparitan jasotzea nahiago badute ere, salduenak perfumeak eta kosmetikoak izango dira, prezioarengatik eta produktu hauetan egiten diren eskaintzengatik.

“Esperientziak” azaltzen dira

Nobedade gisa, sarrien oparitzen direnen zerrendan *esperientzia* sorta aipatzekoa da; hots, osasunaren, edertasunaren, egonaldien edota ekitaldien alorrekoak. Haurrak dituzten gurasoek produktu hezigarriak aukeratuko dituzte batik bat, bideo-jokoen kaltetan. Halere, azken hauek nagusituko dira nerabeen artean.

Jakiak

Mahai gainekoetan, familiek zorrotz jokatu dute berriro ere. Gastua familia bakoitzeko 179 eurokoa izango da, joan den urtekoa baino euro bat gutxiago. 2008ko Gabonetatik kopurua zeharo murriztu da, urte hartan jakietan gastatutakoaren erdia besterik ez baita izango. Itsaskiak, ezkur-urdaiazpikoa edota gourmet motakoak dira salmentetan atzera egin duten produktuak.

Etxetik kanpoko ospakizunen aurrekontua

Aurten ere perfumeak eta kosmetikoak izango dira oparien artean salduenak

aurten familia bakoitzeko 96 eurokoa da, iazkoaren aldean euro 1 gehiagokoa. 2008tik, Gabonetako irtenaldietan gastatzen dena %48 urritu da.

2010ean eman ziren kontsumo-portaera zenbait finkatuko dira heldu diren Eguberrietan. Prezio onenaren bilaketak gero eta garrantzi handiagoa izango du erabakiak hartzeko orduan.

Krisi garaiotan, maukak bilatzen aditu bilakatu dira hiritarrak. Kontsumitzaileak ez du jada erreferentziatzeko denda bakarra; erosketak dibertsifikatzen ditu, preziorik onena aurkitze-arren. Halaber, Internet bidezko erosketek gora egin dute, datozen jaietan % 10era ere iritsiko baitira.

Ikerketaren emaitzen arabera, bulkadaz egindako erosketak desagertu dira, eta hiritar antzeket erosketak atzeratuko dituzte azken orduko eskaintzei esker dirua aurrezteko. Gainera, opariak urtarrileko merkealdietan -Errege eguna igaro ondoren ere- erosiko dituztenen kopurua handituko da.

*ACUBI Bidasoako Kontsumitzaileen Elkarteak
Irungo Udalaren diru laguntzaz
argitaratutako testua*



Gaizki egin dut, barkatu!

Konponduko dut egindako kaltea

Pertsonon ezaugarria da gauzak beti ongi ez egitea. Esaerak dioen bezalaxe, giza-kiok beti egiten dugu estrapozu harri berean. Eta zer egin? Geure burua zigortu? Geure burua estutu? Gehienetan gure burua zigortzeko joera dugu, baina badago gaizki egindakoa konpontzeko bide naturala.



Tamalez, duela urte batzuetako hezkuntza erruan oinarrituta zegoen, eta zerbait gaizki egiten genuenean jo egiten gintuzten, edo ezertarako ez genuela balio sentiarazten ziguten. Zenbait ikastetxetan ohiko gertaera izaten zen zuzenkiarekin eskuetan jotzea, eta batek baino gehiagok etsipen handiz jasan izan du irakaslearen zaplazteko indartsua. Etxe askotan ere zigor bide gogorak erabili izan dira haurren jarra desegokiak bideratzeko. Zorionez, hala-koak iraganeko kontuak dira eta gaur egun gure ikastetxe edo etxeetan ez da horrelakorik gertatzen. Hala ere, gogoetarako une edo galdera bat bideratu nahi nuke:

Gure ikastetxeetan eta etxeetan jotzearen bidea alde batera utzi dugun arren, ba al dugu estrategiarik haurrek edo gazteek zerbait gaizki egiten dutenean hori horrela egin

behar ez dela irakasteko? Haurrek edo gazteek JOKAERA DESEGOKIAK dituztenean, jotzen ez baditugu ere, OHARTU GABE ez al diegu kulpa sentiarazten? Zenbaitetan guraso edo irakasleok, jokaera desegokien aurrean, ez al ditugu errudun sentiarazten, gaizki egindakoari konponbiderik eman gabe? Ez al ditugu nolabait gure hitzen azorriaz jotzen?

Haur edo gazte batek jokaera oso desegokia duenean helduoi burura datorkigun lehen gauza izaten da gaizki zer egin ote dugun pentsatzea (zer egin dugun horrelako haur bat izateko), geure buruari kulpa leporatu eta sentitzen dugun erru-sentimenduaren isla haurrari egozten diogu. Mindurik eta haserre, egin duen kaltearen neurriko zigorra bilatzen dugu, egindakoa oso larria bada zigorra ere halakoa izan behar duelakoan.



Gogoeta sakona egin behar dugu: batetik, nondik gatozen; bestetik, oraindik gure gurasoen hezkuntza zorrotzaren ondorioak paira ditzakegulako kontzientzia hartu behar. Izan ere, askotan gurekin egin dutena (edo gure gurasoekin egin zutena) egiten jarraitzen dugu, ohartu gabe ere. Eta zer egin? Kulpabilizazio pasiboan geratu? Ez!!!! kulpa adimentsuki bideratzen ikasi behar dugu. Zeren guk, gizakiok, badugu tresna natural bat zer dagoen ongi edo zer dagoen gaizki ikasteko.



UTZ NAZAZUE EGINDAKO KALTEA ONARTU ETA KULPA SENTIMENDU HAU BIDERATZEN IKASTEN!!! GAIZKI EGINDAKOA KONPONTZEN IKASI BEHAR DUT BERRIRO GAIZKI EZ EGITEKO!!!

Gizaki emozionalak garenez, emozio sozio-moralak ditugu, gaizki egindakoa konpondu eta harreman positiboak bideratzen laguntzen digutenak. Kulpa, lotsa, harrotasuna eta enpatia dira. Azter ditzagun:

Denok egiten ditugu gauzak gaizki; konturatutakoan **ERRUDUN** sentimendua bizitzen dugunez, orduantxe gaude benetan gaizki egindakoa konpontzeko bidean. Euskaraz argi adierazten den bezala, damutu egiten gara; orduan bakarrik balio du, adibidez, bar-kamena eskatzeak.

Gizakiak ENPATIA izateko joerarekin jaiotzen gara. Denok dugu besteen sufrimendua hautemateko gaitasuna, baina garatzen ez badugu gal dezakegu. Gaizki egindako zerbaitengatik haur bat epaitzen dugun orduko bestearen lekuan ipintzeko bidea mozten diogu. Gaiztoa dela sentiarazten diogu.

Zein da bidea? Zergatik ez diogu haurrari pentsarazten: *Zer gertatu da? Gustatuko litzazuke zuri egitea besteei egindakoa?*

Nola konpon dezakezu?

Errudun sentimendua ezin da barnean geratu; egindako kaltea atera behar da, konpontzen saiatu behar dugu. Nola? Lehenik damuzko bar-kamena eskatuta; gero, denbora eskatzen digun konponbidea bilatuta: iturria irekita utzi bada, ura biltzen lagunduz; zerbait puskatu denean zurea den parekoa ematen, norbait mindu denean marrazki edo eskulan elaboratu bat eskainiz... Hau da:

Egindako kaltearen ondorio logikoa bideratzen. Zer egin dut gaizki? Horren ondorioa bizituko dut,

nire kulpa bideratuta egongo da eta ni jakintsuagoa izango naiz, arduratsuagoa eta autonomoagoa. Bide honetan gugandik ikasiko dugu, emozioak erregulatuz eta zuzena zer den ikasiz, helduaren zigorren arabera jokatu gabe.

HARROTASUNA emozio atsegina da, eta ongi egindakoa baloratzen badigute (laguntzean, bestearen lekuan ipintzean, konpartitzean, ahalegina baloratzean...) egindakoa berriro egiteko bidean gaude. Balio hauek baloratu eta momentu horietan harrotasuna bideratzen badugu berriro errepikatuko dira eta haur edo gaztearen autoestima handituko da.

Hezkuntza emozionalak zoriontasun bidera garamatza. Guraso eta hezitzaileok ere maiz gauzak gaizki egiten ditugu eta helduontzat bidea ere berdina da: kulpa emozioa sentitzeari utzi, damutu eta egindako kaltea konpontzen saiatu. Horrela eredu bikaina izango gara gure haur eta gazteentzat eta, bide batez, mirestuko gaituzte, beraiek badakitelako, hain zuzen ere, zein zaila den beti dena ongi egitea. Zoriontsu bizi!!!

KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA

MAPI URRESTI ORTIZ Kuttun@kuttun.net

2008an zabaldu zen gaur egun pairatzen dugun krisi ekonomikoa. Bitxia da krisiarena. Hamaika modu dago sistema politiko kapitalista honen porrota adierazteko, baina sistemak zutik jarraitzen du.

Paradoxak eta paradigmak

Nonbaitetik edo nolobait abiatu behar nuen 2011ko abenduaren *Eleak iruten* hau, aurtengo azkena, eta horra sarreran paratu dudana. Inpentsan ia-ia, krisi ekonomikoaren gaia, asko pentsatu gabe, pentsamenduan baitaramagu denok.

Krisi ekonomikoa, finantzieroa, politikoa, merkaturen krisia... Bitxia da krisiarena: “Hamaika modu dago sistema politiko kapitalista honen porrota adierazteko, baina sistemak zutik jarraitzen du” idatzi dut sarreran. Horra paradoxa!

Munduaren paradigma politikoak eta ekonomikoak aldatu dira, baina gure paradoxak ez hainbeste. Ageri denez. Pertsonak gara paradoxikoenak, antza.

Paradoxak paradoxa, esaterako, Espainiako Ekonomia ministro Elena Salgado (hitz hauek argitaratu orduko, ministro ohia) iraila aldean, krisiaz ari zela hitz paradoxikoak erabiltzea irudititu zitzaidan: “2008ko krisiaren ondoren, krisi berria dator 2012. urtean” esan zuen Salgado.

Hara, pentsatu nuen, ergel aurpegia nuela: “2008koa iragan al da? Gainditu al da?”



Datorren edo heldu den hau berria al da?”. Mundua gobernatzen dutenen paradoxak ote!? Noski, horiek horrelakoak dira, gu ere paradoxikoak garelako. Herri xehe eta xume deritzogun hori, alegia. Gu, hor nonbait.

Nola edo hala, abendu honetan, 200. zenbakiak argia ikusiko du.

Habitatzen ditugun etxeko hautsak ez ditugu zapaltzen eta nozitzen. Ez aski bederen. Ez nuke inola ere hautsak harrotu nahi horregatik. Gure “bizimoldea” agertu nahi dut, gaingiroki baino ez bada.

Joan badoa abendua, badator urtarrila. Joan badoa beste urte bat, eta heldu da berria. Zorionak *Irunero* honen 200. zenbakia osatu duzuen guztioi. Berau burutu eta berau lagundu duzuen guztioi.

Urte berri on! desiratu ez ezik, *Irunero* zeuen bizitzaren parte izatea desiratzen dizuet bizitzako urte askotan.

Zorionak eta eskerrik asko!

Eguberri on Irunero irakurri eta maite duzuen guztioi!

MIKEL ASURMENDI

Inpresioa gordeta daukat

Udan irakurtzeko apartatu nuen *Txakur ingelesak*. Ordurarte kasu gutxi egin nion, agi denez. *Txakur ingelesak* nobela bateko protagonistak zirelakoan nengoen. Irakurtzen hasia ere, ez nintzen jabetu –ez nuen gibleko aurkibidean erreparatu, hara– ipuin sorta batek osatutako liburua zenik.

Txakur ingelesak izeneko ipuina irakurri ez ezik, berau jan nuen, ipuineko txakurrak akabatu zituen antzo jan ere. Pozarren ari nintzen, nobela laburra amen batean akabatuko nuelakoan. Ipuinak bete ninduen, baina egileak nobela baten trama osa zezakeelakoan, gogoia –edo apetitua– asegabe laga ninduen.

Ordea, beste mundu bat aurkitu nuen jarraian datozen ipuinetan. Mundu bakarra baino, hainbat munduk osatutako mundua agertu zitzaidan. Mundu bat jende, hots, pertsonaia mundua. Fikziozkoak, eta halaber, hurbilekoak. Izena eta izana ezagutzen dizkiogun pertsonaia. Hauetako batzuk, arrastorik utzi gabe desageratzen dira, lehen ipuineko txakurrak bezala.

Herio oinez dabil Lutxo Egiaren hiri globalean. Hiri birtualean. Egiatzko hiri globalean. Ipuin batetik bestera iraganik ere, mundu berean zaude, eta haatik, mundu ezberdinetan. Edo ezberdinean. Fikzioan mundu oro mundu bat baita. Pertsonaia antzekoak dira, antzekoak baina diferenteak. Inpresioa gordeta daukat, pertsonaia –pertsonak– berak izan daitezkeela une batean fikziozkoak eta beste une batean errealak.

“Inpresioa gordeta daukat” idatzi dut. Inpresio hauek ez nituen irakurri eta berehala “inprimatu”. Arrazoiak arrazoi, hitzok hilero biltzen zituen *Irunero* aldizkaria aldian geratu baitzen. Aldian



Liburua:

Txakur ingelesak

Egilea: Lutxo Egia

Argitaletxea: Susa

eta denboran ainguraturik. Halaxe daramatzat nik ere Lutxo Egiaren ipuinetako pertsonaia, aldian ainguratuak, gogoan lausotua.

Berbarako, artean, entzutez baino ezagutzen ez nuen Txema Larrea –*Killing Txema Larrea* narrazioa irakurri aurretik ere ez nuen ezagutzen– berriki “ezagutu” ahal izan dut. “Ezagutu” idatzi dut. Hemendik aurrera, bera ikustean besteengandik “bereizi” dezakedala esan gura dut. Ezagutzea besterik da eta. “Arrunta da hildako idazleak agertzea bizirik daudenei...” hasten da *Killing Txema Larrea* ipuina. Niri Txema Larrea ez zait hilik agertu. Badaezpada diot.

Alabaina, fikzioaren eta errealitatearen artean ibiltze horretan, mundu errealean eta mundu birtualean ibiltze honetan, literatura eta gizarte saretan ibiltzean, aurki, hildakoren bat bizirik agertuko zaidalakoan nago.

Liburuan agertzen den hamaika izenetako edonor izan liteke. Errealia eta fikzioa, pertsona(ia) baten aurkia eta ifrentzua izan baitaitezke. Bestela esanda, artean, oraindik ezagutu gabe ere, bizirik dagoen inorekin topo eginen dudalakoan bizi naiz. Liburuko pertsonaia errealean batekin, hots. Edota liburuaren eskaintza jasotzen duen Unai Dorronsororekin berarekin. Berbarako.

Ez da sekula berant. Ez hildakoak ezagutzeko, eta are gutxiago bizirik daudenak jende artean –topo eginez gero– “bereizteko”.

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Abenduak 16

- Amaia KZn, 20:00etan, *Nagore* filmaren emanaldia. Sarrera: dohainik.



- Amaia KZn, 20:00etan, gospel kontzertua, Gay familiaren eskutik: gospelaren historiako talderik garrantzitsuetako bat.

Abenduak 18



- Amaia KZn, 17:00etan, *Anaki* izenburuko antzerki

multimedia dibertigarria eta berritzailea. Badu marrazki bizidunekin antzekotasunik. Umeei zuzendutakoa bada ere, publiko zabalerentzat egokia da.

Abenduaren 18ra arte

- Euskadiko Kutzaren aretoan, Mertxe Aranaren margolanak.

Abenduak 20 - Urtarrilak 1

- Euskadiko Kutzaren erakusketa aretoan, Iñaki Ezeizaren margolanak.

Abenduak 17

Gabonetan

- **Abenduaren 16tik 29ra**, Amaia KZan, Olentzero eta Jaiotza erakusketa.

- **Abenduaren 21ean**, Santo Tomas eguna Urdanibia plazan.

- **Abenduaren 24an**, 17:30ean, Olentzero bere jarraigoarekin Artaleku kiroldigitik abiatuko da, eta Zabaltza plazaraino iritsiko da, Kale Nagusia,

Foruen karrika eta Kolon ibilbidea igaro ondoren. Ongietorri ekitaldian Olentzerok haurren gutunak bilduko ditu.

- **Abenduaren 24an**, San Juan Harria plazan, 19:00etatik aurrera, Olentzero eta Gabon kantuen jaialdia.

- **Urtarrilaren 4an**, Udaletxean, Errege



Magoen morroiek haurren gutunak bilduko dituzte.

- **Urtarrilaren 5ean**, Errege Magoen kabalkada Kolon ibilbidetik.

Udal liburutegiko ekintzak

- Abenduaren 12an

19:00etan, LIBURU-FORUM. Jane Bowles-en *Dos damas muy serias*.

- Abenduaren 14an,

17:30ean, haurrentzako IPUIN KONTALARIAK. Virginia Imazek *De princesas y ratones* ipuina kontatuko du.



- **Abenduaren 15ean**, 18:00etan, Carlos de Agustinen mintegia. *Álbum-Letras* aldizkariaren edukien azterketa (gaztelaniaz).

- **Abenduaren 15ean**, 19:30ean, helduentzatko IPUIN KONTALARIAK, Virginia Imazen eskutik. Izenburua: *Corazonadas*.

- **Abenduaren 19an**, 17:30ean, POESIA TALDEA (gaztelaniaz). Egilea: P. Garcia Baena.

- Abenduaren 19an, 19:30ean, IDAZKETA TAILERRA (II. zatia), gaztelaniaz.

- **Abenduaren 20an**, 19:00etan, IRAKURKETA KLUBA. Gaia: Elisabeth Gaskell-en *Cuentos góticos* (gaztelaniaz).

Gabonetako haur parkea



PIN! PAN !PUN!

Non: Ficoban

Noiz: Abenduaren 21etik urtarrilaren 4ra.

Ordutegia: 15:00etatik 20:00etara.

Abenduaren 24an, 25ean, 31ean eta urtarrilaren 1ean, itxita.

PREZIOAK: 14 urte arteko haurrek: 7 €. Helduek: 5 €
10 haur baino gehiagoko taldeetan 4na €.

Menchu Gal-Javier Alkain erakusketa

Urdanibia plazako Menchu Gal aretoan, Menchu Galen 20 erretratu eta Javier Alkainen obraren lagina ikusgai urtarrilaren 15era arte. Ordutegia: ostiraletan eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara, eta igandeetan, 11:30etik 13:30era.



AIDIA

Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- **KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA.** Deialdigilea: Booket; Austral; Ámbito Cultural. Baldintzak: Espainian bizitzea, 2011-2012 ikasturtean Espainiako edozein unibertsitatetan matrikulatuta ego-

tea. Saria: 6.000 euro. Epea: 2012ko urtarrilaren 20a.

Lana



- **ZERBITZUETAKO LANGILE PLAZAK OSAKIDETZAN.** Baldintzak: Ikasketa urteen ziurtagiria (DBH edo baliokidea) izatea. Epea: 2011/12/21.




- **ERIZAINZAKO LAGUNTAILE PLAZAK OSAKIDETZAN** (2011ko EPE).

Baldintzak: Erizaintzako zainketa laguntzaileen teknikari titulazioa edo baliokidea izatea. Edukia: Erizaintzako laguntzaileen, Osasun Mentaleko erizaintzako laguntzaileen eta Osasun Mentaleko monitoreen lanpostu funtzionalak. Epea: 2011/12/21.

- **ZELARI PLAZAK OSAKIDETZAN**

Baldintzak: Ikasketa urteen ziurtagiria (DBH edo baliokidea) izatea. Edukia: Osakidetzako 2011ko EPEko zelari plazarak. Epea: 2011/12/21

harpidetza



gazte
informazioa

043 505 444
043 505 440

Heka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eda idazteko, eta estero bidaliko dirugu informazioa sare estera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZENAK
HELBIDEA,
P.K. BEKRIA
POSTA ELEKTRONIKOA

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pidecarta y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

Zinema eta Bideo Gaztearen Lehiaketa

EPAIMAHAI GAZTEAN PARTE
HARTZEN BADUZU AUKERA ASKEKO
KREDITUAK LORTUKO DITUZU



Libre al zaude abenduaren
26tik 29ra? Zinearen mundua
aurrez aurre ezagutu nahi?
Baldintza bakar bat jartzen da:
lehiaketako proiektzio guztietan parte hartzea.

**EMAN EZAZU IZENA GAZTE INFORMAZIO BULEGOAN: FORUEN
KARRIKA, 2. IRUN.**

La Caixa beka

Obra Social La Caixa-k 225 beka deitu ditu,
Espainian, Europan, Estatu Batuetan, Kanadan eta
Asian graduondoko ikasketak egiteko.
Kontsulta itzazu epeak www.irun.org/igazte webean.



Zure graffitiak, sarean!

Inoiz bururatu al zaizu
graffitiak egiteko traste-
ak hartu eta hormaren
batean pintatzera joa-
tea?

Bada, orain baduzu
aukera graffitero izate-
ko eta zure lanak sare
sozialen bitartez parte-
katzeko.

Burn Da Walls orrial-
dera jo ezazu eta hiriko
edozein hormatan nahi
duzuna margo ahal
izango duzu!

Eskura ezazu euskara ikaslearen txartela

Abantailak:

- Beherapenak Irungo Udalak antolatzen dituen euskarazko jarduera eta ekitaldietan; esaterako, Amaia KZn eta Oiasso, Eureka eta Aquarium museoetan.
- Beherapenak euskal aldizkari eta egunkarien harpidetzan; besteak beste, *Argia Berria*, *Luma* eta *Gaztezulo* argitalpenetan.
- Beherapenak Elkar eta Oskarbi liburu-dendetako euskarazko produktuetan.



irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON-TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen karri-
ka)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA

(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Uranzu,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKARTEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).



Gipuzkoa TB Txingudik
Bidasoaldean % 100eko
estaldura du

Kontsultak edo instalazioak
egiteko:

Ilargi Antenak

943 64 50 33



txingudi



Biltegi eta bulegoak:
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.